

## **Langabezian dauden gazteen % 43k prestakuntza-jarduerak gauzatzen dituzte**

### ***Gazteek hein handiagoan joaten dira prestakuntza-jarduera osagarrietara, biztanleria osoa baino***

Etengabeko ikaskuntza edo bizialdi osoko ikaskuntza (*lifelong learning*) Europar politikaren zutabeetako bat da hezkuntzaren arloan, eta bere helburua etengabeko prestakuntza da, lanera bideratua, zein ez. Europako Batzordearen definizioaren arabera, perspektiba pertsonalera, zibikora, sozialera edo lanera bideratu eta kualifikazioak, ezagutzak eta gaitasunak hobetze aldera, jarraitutasunez egiten den ikaskuntza-jarduera erabilgarri oro da. Definizio zabal honek pertsonaren bizitza osoan barreneko ikaskuntza azpimarratzen du eta ikaskuntza formala, informala nahiz ez formala hartzen ditu aintzat.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Legebiltzarrak [1/2013 Legea, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzkoa](#), onartu du. Eusko Jaurlaritzak, beste herri-administrazio batzuekin eta hezkuntza-, gizarte- eta ekonomia-eragileekin koordinatuta, bizialdi osoko ikaskuntza bultzatu nahi du, sustapen pertsonala, gizarte-kohesioa, enplegarritasuna eta satisfazio pertsonala hobetzeko.

Bizialdi osoko ikaskuntzak edo etengabeko ikaskuntzak Euskadiko gazteen artean duen hedakuntza aztertzeko, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazteri inkesta egin zien [Gazteen Euskal Behatokiak](#), 2012an. Galderetako bat izan zen ea egin al zuten azken hamabi hilabeteetan ikasketak sakontzearekin, astialdiarekin, osasunarekin, kirolarekin eta abarrekin lotutako ikastarorik edo prestakuntza-jarduerarik (baina, ikasleen kasuan, ikasketa-planetik kanpokoak).

Gazteen % 41ek esan zuten aurreko urtean horrelako prestakuntza-jarduera batean ibili zirela. Ehuneko hori altuagoa zen 18 urteko eta hortik gorako biztanleria osoan baino (% 34, 2011n, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen [Bizialdi osoko ikaskuntza](#) azterlanaren arabera).

Prestakuntza-jarduera osagarriak egiten zituztenen ehunekorik garaienak 20 eta 24 urte bitarteko gazteen eta Bizkaian bizi direnen artean aurki daitezke (% 45, bi kasuetan).

**Pentsa ezazu orain bai lanarekin, ikasketak sakontzearekin, astialdiarekin, osasunarekin, kirolarekin eta abarrekin lotutako ikastaroetan eta prestakuntza-jardueretan eta esan: azken 12 hilabeteotan egin al duzu egiten ari zara horrelako ikastarorik edo prestakuntza-jarduerarik? (ikaslea bazara, zure ohiko ikasketez aparte)**

ADIN TALDEAK	LURRALDE HISTORIKOA	ADIN TALDEAK			LURRALDE HISTORIKOA		
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
(%)	GUZTIRA						
Bai	41	36	45	43	36	45	39
Ez	57	62	53	56	63	54	59
Ed/Ee	2	2	2	1	1	2	2
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100

Ikasi baino egiten ez duten gazteen herenak (% 34) eta langabezian dauden gazteen ia erdiek (% 43) ziotenez, lanarekin, ikasketak sakontzearekin edo astialdiarekin lotutako prestakuntza-jardueraren bat eginda zuten aurreko urtean.

**Pentsa ezazu orain bai lanarekin, ikasketak sakontzearekin, astialdiarekin, osasunarekin, kirolarekin eta abarrekin lotutako ikastaroetan eta prestakuntza-jardueretan eta esan: azken 12 hilabeteotan egin al duzu egiten ari zara horrelako ikastarorik edo prestakuntza-jarduerarik? (ikaslea bazara, zure ohiko ikasketez aparte)**

JARDUN NAGUSIA	GUZTIRA	JARDUN NAGUSIA			
		Ikastea	Ikastea eta lan egitea	Lan egitea	Langabezian
(%)					
Bai	41	41	60	34	43
Ez	57	57	38	64	53
Ed/Ee	2	1	2	2	4
PORTZENTAJEA GUZTIRA	100	100	100	100	100

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**

